



SORALUZETKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

HILETA ZIBILAK EGITEKO UDAL ORDENANTZA

**ORDENANZA MUNICIPAL PARA LA
CELEBRACIÓN DE FUNERALES CIVILES**

ATARIKOA

PREÁMBULO

Jakina denez, Estatu akonfesional edo laiko batean erakundeek bermatu behar dute pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzekoa.

Como es conocido, en un estado aconfesional y laico son las instituciones quienes deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto a las personas y comunidades.

Era berean, ezaguna da zer nolako aniztasun ideologiko, erlijioso eta kulturala duen gure gizarteak. Hain zuzen ere, gizarte plurala da eta etenik gabe eraldatzen ari da, bere ohitura eta ekitaldi sozialei dagokienez.

Asimismo, es bien conocida la diversidad ideológica, religiosa y cultural de la que goza nuestra sociedad. Precisamente, nuestra sociedad es plural, y sus costumbres y actos sociales se transforman sin cesar.

Norbait hiltzean hileta zibilak egitea eskaera sozial bat da, beharrezkoa baita pertsona bakoitzari bere printzipioekin bat datorren ospakizun duina eskaintzeko aukera izatea.

La celebración de funerales civiles, ante el fallecimiento de alguna persona es una demanda social fruto de la necesidad de que se pueda ofrecer a todas las personas una celebración digna y coherente con sus principios.

Hileta zibilak leku pribatuetan eta tanatorioetan egin badaitezke ere, Soraluze Udalak dagoen eskaerari erantzun nahian, xede horretarako gune publikoen egokitzapena arautuko du.

Independientemente de que los funerales civiles se puedan desarrollar en ámbitos privados, el Ayuntamiento de Soraluze pretende responder a esta demanda regulando la habilitación de espacios públicos para tal fin.

I. KAPITULUA.- XEDEA

CAPÍTULO I.- OBJETO

1. Artikulua.

Ordenantza honen helburua da arautzea Soraluze udalerrian hildakoen aldeko hileta zibilak egiteko espazio publikoen erabilera eta hartarako baimena.

Artículo 1º.

El objetivo de la presente ordenanza es la regulación, en el municipio de Soraluze, del uso de espacios públicos destinados a la celebración de funerales civiles de las personas fallecidas, y la regulación de sus correspondientes licencias.

II. KAPITULUA.- BAIMENA

CAPÍTULO II.- AUTORIZACIÓN

2. Artikulua.

Hileta zibilak egiteko eskaerak Soraluze Udalaren Alkatetzari zuzenduko zaizkio, Udalak hartarako duen eskabide eredu erabiliz.

Artículo 2º.

Las solicitudes para la realización de funerales civiles deberán dirigirse a la Alcaldía del Ayuntamiento de Soraluze utilizando para ello el modelo de instancia previsto por el Ayuntamiento.

Eskabidea Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan edo itxita balego Udaltzaingoaren bulegoetan aurkeztuko da ospakizuna egin nahi dutena baino 24 orduz lehenago gutxienez.

La solicitud se presentará en el Servicio de Atención al Ciudadano, o en el caso de que esté cerrado en las oficinas de la Policía Municipal, al menos 24 horas antes de la celebración del acto.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

3. Artikulua.

Edozein arrazoirengatik Udalak irizten badu ez dagoela erabiltzerik hileta ospakizuna egiteko leku bat, Udala harremanetan jarriko da eskaera egin duenarekin, egoeraren berri emateko eta beste irtenbide bat adosteko.

Eskaera bat baino gehiagok, leku eta ordu berdina izanez gero, aurretik egin duenak lehentasuna izango du.

III. KAPITULUA.- ANTOLAKETA

4. Artikulua.

Oro har, ospakizun hauek hurrengo espazio publiko hauetan egingo dira, beti ere, beste erabilera batentzako erreserbatua ez baldin badaude:

- Pilotalekuan
- Kanposantuan

Aparteko egoeretan baimena eman ahal izango da beste lokal edo espazio publikoren bat erabiltzeko.

5. Artikulua.

Hileta zibila ospatzeko ordutegia astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara izango da:

Larunbatetan, adierazitako ordutegiaz gain, 12:00ak eta 14:00ak bitartean ere egin ahal izango dira hilerak zibilak.

6. Artikulua.

Ospakizunaren antolakuntza eta gastu guztiak, eskatzailearen kontura izango dira.

Ekitaldiaren ospakizunean udal langileen laguntza izango da.

Soraluzeko Udalak hurrengo material osagarria jarriko du eskatzaileen esku:

- Megafonia-ekipoa (luzagarri eta guzti).
- Hilikutxa jartzeko euskarria.
- Hamar aulki, gehienez.

Soraluzeko Udalak ospakizun hauengatik eskatu ahal dituen kopuruen ordainketari dagokienez, momentuan indarrean dauden Ordenantza Fiskalek arautu eta ezarritakoari jarraituko zaio.

Artículo 3º.

En caso de que por cualquier causa el Ayuntamiento considere que no se puede autorizar el uso del espacio para el acto funerario, el Ayuntamiento se pondrá en contacto con el peticionario a fin de comunicarle la situación, y se buscará una alternativa.

En caso de que coincida más de una solicitud en el mismo lugar y hora tendrá prioridad la que se haya realizado antes en el tiempo.

CAPÍTULO III.- ORGANIZACIÓN

Artículo 4º.

Por lo general, estas celebraciones se llevarán a cabo en los siguientes espacios públicos, siempre y cuando no estén reservados para otro uso:

- El frontón
- Cementerio

En situaciones excepcionales, se podrá autorizar el uso de otros locales o espacios públicos.

Artículo 5º.

El horario para la celebración de funerales civiles será de lunes a sábado, de 18:00 a 20:00 horas.

Los sábados, además de en el citado horario, también podrán celebrarse los funerales entre las 12:00 y las 14:00

Artículo 6º.

La organización y todos los gastos de la celebración correrán a cargo del solicitante.

La celebración del acto contará con la colaboración de personal municipal.

El material auxiliar que el Ayuntamiento de Soraluze pondrá a disposición de los solicitantes será el siguiente:

- Equipo de megafonía (con alargador).
- Elemento para soporte del féretro.
- Hasta 10 sillas.

El Ayuntamiento de Soraluze, en relación a las cantidades que puede requerir en concepto de estas celebraciones, se registrará por lo regulado y establecido en las Ordenanzas Fiscales que se encuentren en vigor en ese momento.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

IV. KAPITULUA.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

7. Artikulua.

Hildakoei dagokienez, indarrean dagoen araudi sanitarioa aplikatuko da.

8. Artikulua.

Kontserbazio egokia bermatzeko, baimena duen titularrak izango du erantzukizuna, ekitaldiarengatik udal ondasunetan gertatzen diren kalte eta galeren aurrean.

9. Artikulua.

Hileta zibilaren ekitaldia egingo den tokia modu berezian apaindu edo atondu nahi badute familiakoek eta/edo adiskideek, udal arduradunari garaiz jakinarazi behar diote, bidezko erabakiak har ditzan.

Apaintze edo atontze lanek sortzen dituen gastuak haien kargura izango dira. Ekitaldia gauzatzeko zerbitzu osagarriak pertsona interesdunak emango ditu eta bere kargura izango dira.

10. Artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusten ez den edozein alderditarako, udal arduradunen aginduak hartuko dira kontuan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Soraluzeko Udaleko Alkatetzari baimena ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko beharrezko diren jarduketak guztiak egin ditzan

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean eta Udalbatzak espresuki aldatu edo indargabetzen duen arte egongo da indarrean.

CAPÍTULO IV.- DERECHOS Y OBLIGACIONES

Artículo 7º.

Será obligatorio respetar la normativa de vigente aplicación en materia sanitaria mortuoria.

Artículo 8º.

Con el fin de garantizar su debida conservación, el titular autorizado tendrá la responsabilidad sobre los daños y perjuicios ocasionados en los bienes de propiedad municipal a consecuencia de la celebración del acto.

Artículo 9º.

Si la familia y/o las amistades de la persona finada desean adornar o engalanar de manera especial el lugar donde se vaya a realizar el acto correspondiente al funeral civil, deberán notificarlo al responsable municipal correspondiente, para que pueda adoptar las decisiones pertinentes.

Los gastos generados por las labores de ornato correrán a cuenta de la persona interesada. Ésta facilitará los servicios complementarios para el desarrollo del acto, y serán a su cargo.

Artículo 10º.

Para todo aquello que no se haya previsto en la presente Ordenanza, se atenderá a los preceptos de las personas responsables del Ayuntamiento.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se faculta a la Alcaldía del Ayuntamiento de Soraluze para que lleve a cabo todas aquellas acciones necesarias para la aplicación de la presente ordenanza.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y permanecerá en vigor hasta que el Pleno de la Corporación Municipal acuerde expresamente su modificación o su derogación.